

# ZAZPIRAK BAT ALA SEIRAK BAT?

- Naparroa len eta gaur
- Izatez beti bat
- Hueska ta ERRIOXA
- Burua euskaldundu

*BeGi entzun izan dogu zera: Euskalerriko ~ariak edo lurraldeak zazpi dirala, eta orregatik esaten dogu «ZAZPIRAK BAT».*

*Gure aberriko zazpi zati oneek zeintzuk diran ba-dakigu: A raba, Bizkaia, Gipuzkoa, Laburdi, Zuberoa, Naparroa eta Benaparroa.*

\* \* \*

*¡Naparroa gaurko egunean zoritarrez zati bitan barralute dago bien artean muga edo sasi-muga dagolarik; baina leen ez ;gan olan.*

*Historian zear gora joan gaitezen, gauzak argitzeko.*

*Fernando «katoliko» Erregeak 1,512 garren urtean amen indarrez Naparroa osoa arrapatu, eta Kastillarekin lotu eban.*

*Bahia 1,530 urtean V-garren Karlos Enperadoreak Frantziako Errearekin alkartasun bat egin eban, Benaparroa bere egiazko jabeari bariz emonaz.*

*Onela Naparroa gaur arte bi zatitan banatuta aurkitzen dogu:*

*Goi-¡Vajarroa, bere Iruburuia Iruira dala, eta Benaparroa, bere burn Donibane Garazi dalarik.*

*Orregatik .Naparroa izatez eta historiari bat da, baiña ezpataz eta indarrez bi zati.*

\* \* \*

*Baiña guk ezin geinke onartu ezelan bere, hi Najarroa dirala pentzatzea eta esatea. Gure kultura, guk*



*eskoletan ikasi doguna, kaslillakoa da, eta kontuz ibilli bear dogu gauzak euskaldun legez pentzatzeko.*

*Au ala izanik ez daigula ontzat artu zera: goi-naparroakoak bakarrik dirala benetako naparrak, eta Benaparroakoak bigarren maillako, edo erdi-naparrak bakarrik.*

*Naparroa biak arriarma edo eskudo bardiña dabe: Santxo Azkarrak, Naparroako erregeak Navas de Tolosan, moroei irabazitako kateak.*

\* \* \*

*Orain beste itaun edo galdera bat: zenbat Euskalerrri dira? Edo izan dira?*

*Hueskako lurraldeak orain Euskalerrri ez badira ere, leen ez ete ziran Euskalerrriko zati izan?*

*Ango erri eta lokien izenak esaten*

*deuskue antxiña barik, ango bizilagunak euskaldunak izan ziralaz: Javierregay, Oza, Lizara, Zuriza ez ete (lira euskal izen garbi-garbiak?)*

*Eta azken galdera edo itauna:*

*Eta Errioxa?*

*Ba dakigu Kalaorra, erromatarren aldian euskalduna zala.*

*Ba dakigu Ojaskastro errian 13 garren gizaldian euskeraz egiten zala.*

*Ba dakigu Errioxako izen asko eta asko euskaldunak dirala: Ezkaray, OIauri, Sajazarra ez etc dira euskal izenak?*

*Ba dakigu orain 1.000 eta bat uric an, Errioxan, San Millango fi ailetxean idatzi ziralaz leenengo euskal esaldiak...*

*Erdal kulturarekin, kontuz!!! Burua euskaldundu bear dogu.*

Goikoetxca'tar Iñaki